



DIRU-SARRERAK

Gure enpresak, **Erraztu S.Koop.**, diru-sarrerak lortzeko hainbat bide izango ditu, zerbitzu nagusiez gain (prestakuntza, aholkularitza, tailerrak, materialak eta atsedeen zerbitzua). Helburua da **jasangarritasuna bermatzea eta gizartean eragin positiboa sortzea**. Hona hemen gure diru-sarreren iturri nagusiak:

1. Zerbitzuen salmenta zuzena

- a. Tailer didaktikoak eta hezkuntza emozionaleko jarduerak
Ikastetxeetan eta institutuetan tailer inklusiboak eta sentsibilizazio saioak eskaintzen dira. Tailer hauek beti gure bezeroen nahietara egokitu egingo dira. Enpresetan irisgarritasun-aholkularitza eta prestakuntza profesionala eskaintzen da, espazio eta prozesuen inklusibitatea hobetzeko, beti ere gure bezeroen nahietarako egokituz, eta Udalek antolatutako jardunaldi eta kanpainetan parte hartuko dugu.

Bezero guztiei beti beraien beharretara egokitutako aurrekontua egingo zaie.

- b. Kirol egokitua eta aisialdi inklusiboa
Taldeko saioak: 15 €/pertsona (ordu bakoitzeko).
Saio indibidualak: 35 €/pertsona.
Helburua: desgaitasuna duten pertsonen ongizatea eta gizarte-integrazioa sustatzea.

- c. Atsedeen zerbitzua

Zaintza orduka:

- Egunez: 10 €/ordu.
- Gauez: 13 €/ordu.
- Asteburuetan: 12 €/ordu.

Helburua: zaintzaileei atsedeen ematea eta familiaren ongizatea bermatzea.

- d. Material didaktiko inklusiboak
Piktograma-kitak, gida errazak eta kartelak:
 - Prezioa: 10–20 € pakete bakoitzeko.
 - Premium deskarga digitalak: 5–15 €.



2. Diru-laguntzak eta Hitzarmenak:

Diru-laguntza era honetan lor ditzakegu. Batetik, dirulaguntzak daude (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza). Zehazki, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Erandioko Udala eta fundazio pribatuak (ONCE, La Caixa, BBK) dira gure proiektuak finantzatzeko iturri nagusiak. Haien helburua da proiektu inklusiboak finantzatzea eta gure zerbitzuak komunitatean zabaltzea.

3. Crowdfunding eta Kanpaina Solidarioak

Goteo edo Verkami plataformetan kanpainak abiarazten dira proiektu zehatzak finantzatzeko. Gure kasuan proiektuaren lehen faseak finantzatzeko aukera emango zigun, webgunea edota materialak finantzatzeko modukoa. Konpentsazioan tailer batean parte hartzea, material eskusiboa... jasoklo lukete laguntza ekonomikoa ematen diguten pertsonak. Amesten enpresan egiten den bezala.

4. Packak eta Harpidetzak:

Hileko kuota baten truke, 10-15 € inguru, abantaila ezberdinak jasotzeko aukera izango dute elkarteak edota familiek (Material digital inklusiboa, Webinar inklusiboak, Deskontuak tailerretan...).

5. Merchandising Inklusiboa:

Kamisetak, poltsak eta agendak eskainiko lirateke, inklusioari eta aniztasunari buruzko mezu positiboekin. Gainera, desgaitasuna duten pertsonak diseinatutako produktuak ere salduko dira, balio sozial erantsia sortuz.



Irudi 1. Copilot (2026)



Irudi 2. Copilot (2026)



Irudi 3. Copilot (2026)

6. Babesletzak eta mezenasgoa

Webgunean edo ekitaldietan espazioak eskainiko dira, betiere gizarte-balioekin lerrokatutako enpresentzat. Helburua da inklusioa sustatzen duten markekin aliantza etikoak sortzea.

7. Ekitaldiak eta Jardunaldiak:

Udalekin eta enpresekin elkarlanean jardunaldi inklusiboak antolatzen dira. Sarrera sinbolikoa edo babesletza bidez finantzatzen dira. Motibaziozko hitzaldiak ere eskaintzen dira, benetako testigantzekin eta parte-hartzeagatikotako kuotarekin.

8. Online Ikastaroak eta Baliabide Digitalak

Irakasle eta enpresentzakotako online prestakuntza eskaintzen da, bideoak, PDFak eta piktogramak barne. Material egokituak erabiltzeko lizentziak ere eskaintzen dira (KSHO packs).



9. Deskargen bidezko dirusarrerak.

Web-orritik edo aplikaziotik deskargatzen den materialaren bidez lortutako dirusarrerak dira hauek. Deskarga batzuk dohakoak izango dira, eta beste batzuk ordaintzekoak.

Iturri hauek gure negozio-eredua **iraunkorra** izatea ahalbidetzen dute, aldi berean gure proiektuaren **muina** mantenduz: desgaitasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta haien familien eta komunitateen babesa sustatzea.

Bestetik, babesleak eta mezenasgoa ere finantzaketa-iturri garrantzitsuak dira, eta horiekin batera, jendeen ekarpen txikiak ere jaso daitezke,



ITURRIAK:

- Amesten. <https://amesten.org/eu/lagundu#socio>
- Goteo. goteo.org
- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erraztu S.Coop.” [Imagen generada por IA].
- ONCE. <https://www.fundaciononce.es/eu>
- Verkamy. <https://www.verkami.com/>

IRUDIAK:

- Irudi1. Copilot 2026
- Irudi2. Copilot 2026
- Irudi3. Copilot 2026